

# ...eta **kitto!**

754 zkia. 2011-III-4

ASTEKARIA

TOKIKOM



# Hiltzeko moduko 34. antzerki jardunaldiak **kartela**

## **EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
preziorik onenean



## MEDEKOTASUNAREN LEGEAK GIPUZKOAN IZANGO DUEN ERAGINA. INFORMAZIOA

Tarteko medekotasuna duten pertsonak ere izango dute laguntza 2011n: 1. graduiko 2. mailako medekotasuna dutenek, hain justu.

Pertsona horiek zein diren? Egunean behin behinztat laguntzaren bat behar dutenak, eguneroko bizimoduak jarduera cinarrizko batzuk egiteko, eta baita aldiari behin nola baitaiteko laguntzaren bat behar dutenak ere, beren kasa moldatzeko.

Ordu horietako medekotasuna dutenentzat telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzusk daude, eta baita prezazio ekonomiko batzuk ere pertsona bere inguruetatik atera gabe zaintzeko.



Elkartasuneko Pasa Aldekoa  
Diputazioa Foral de Gipuzkoa  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamentu de Política Social

Gipuzkoa  
zure ondoan

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
tzu  
**zerbitzua**

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskar atik  
gaztelar ara,  
gaztelar atik  
euskar ara,  
eta ingelesetik  
euskar ara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

kunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Antzerki Jardunaldiak

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HANKA-MOTZ.-** Erren, kojo. "Anka motza, baiña gu baiño lehenago heldu zan Izura".

**HANKAGORRI.-** Jaioberri. "Hanka gorririk izan al dozu etxian?".

**HANKAKA.-** Jokoetako berba. Katigu zein geratzen den erabakitzeke zozketa. Lagun biren artean hankak pausotxoka-pausotxoka alkarrengana hurreratzen dira batak bestearen hanka gaina zapaldu arte. "Saltalaska jokurako be katiguak aukeratu bihar ziran eta horretarako hankaka egitten zan".

## ESKUTITZAK

### ANONIMOTASUNAZ ETA INPUNITATEAZ

Orain dela aste batzuk, gune honetan bertan, Eibar-ko Emakumeen mahaiko kide batzuek eskutitza idatzi zuten, aurretik beste hainbatek egin bezala, egoera larri baten salaketa egin asmoz: Aniaz Ariznabarreta Ibarluzea eibartarrak, bere parte-hartze politikoa dela-eta, jasandako atxiloketan zehar bizitako sexu-eraso eta torturak. Edonoren bihotza amorratzeko modukoa.

Joan den astean, hainbat komunikabidek gure herrian jazotako beste gertaera baten berria zekarten. Indarkeria patriarkalaren beste kolpe bat, oraingoan emakume gazte baten aurka, bere 30 urteko senarraren eskutik, indarkeriaz tratatzen zuela-eta etengabe.

Bi gertaera horiek erabat ezberdinak dira itxuraz, baina nik, atrebimenduz, parekotasuna topatu diet. Ez Aniaz torturatu eta erasotu zutenek (zein haiei agindua eman zietenek) ez eta 30 urteko erasotzaile honen ez dute ez izenik, ez abizenik, ez eta aurpegirik. Sozialki (zer esanik ez judizialki) merke atera zaie emakumeen aurka indarkeria erabiltzea. Eta hori berdintasunaren alde hainbeste hitz egin eta idazten den sasoiotan. Agian hori baino lehenago pribilegioez, zapalkuntzaz eta inpunitateaz hitz egin beharko genukeelakoan nago.

JOKIN AZPIAZU CARBALLO

## AZKEN ORDUKO BERRIA

### PAULINO LARRAÑAGA HIL DA

Paulino Larrañaga Longarte artista eibartarra hil da, 92 urterekin. 1918ko apirilaren 13an jaioa, askorentzat maisu haundia izango zena ikaslea izan zen irakasle kontuetan hasi baino lehen. **Bere hileta-elizkizuna**

**San Andres parrokian izango da gaur, 19.00etan.**

Azken orduko berria izan denez, **hurrengo asteko aldizkarian modu zabalagoan landuko dugu** artista haundi honen inguruko informazioa.

asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"Inkestek diotenez, hogeita bost ikasle dauzkan gela batek bost bat errepikatzaile ditu, batez beste. Horrek esan nahi du hamabost urteko gazteen artean %36k ikasturte bat galdu dutela. Eta ikasturtea errepikatu behar duen ikasle hori gizarteari 20.000 euro kostatzen omen zaio. Alemaniako adituek diotenez, kurtsoa errepikatzeak estigma lotsagarria lagatzen dio ikasle horri eta denbora galtzea baino ez da"

(Joxemari Iturralde, idazlea)

"Islandian bai eman diotela erantzun eredugarria krisiari eta kasu bakarra da European. Soilik han jausi da gobernu mobilizazioen eraginez, soilik han erabaki dute erreferendumaren bidez Islandiako bankoek Erresuma Batuarekin zuten zorra ez ordaintzea, han bakarrik sartu dituzte krisiaren arduradunak kartzelan edo, behintzat, auzipetu. Ez da kasualitatea bertako gertaerei hedabide askok aipamenik ere ez egitea"

(Igor Urrutikoetxea, IABeko nazioarteko idazkaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## ATXILOTA BIKOTEA ERASOTZIAGAITIK

Andren kontrako indarkeria akusaziñuarekin 30 urteko gizonezkua atxilotu eben aurreko astian Eibarren. Bikotekidiak etxetik urtetzen lagatzen ez zetsala-eta, andrak leihotik laguntasuna eskatu eban eta bertaratutako erizaiñak, andrak ansiedade krisixa zekala ikusitta, ospitalera eruatia erabagi eben. Andria haurdun dago eta bikotekidiak emondako kolpien eraginez ubeldurak zittuan.

## ALDI BATERAKO EGONALDIXA


Gizartekintza saillak aditzera emon dabenez, Aste Santuan Egoitzan aldi baterako egonaldixa egitteko eskaeriak presentatzeko azken eguna martxuaren 18xa izango da.

## IPURUAKO EGUNEKO ZENTRUA

Diputaziñuak eta Ipuruako Eguneko Zentruaren arteko laguntza-hitzarmena sinatu eben astelehenian; horri esker nagusixendako zazpi plaza konzertatzia lortu dabe. Maiatzian zabalduko 19 plazako zentrua ixtekotan zan, baiña hitzarmenari esker aurrera egitteko moduan izango dira.

## Bixar landarien azokia egingo da Urkizun

ZAPATU GOIZIAN GIPUZKUAKO 10 BAT ERAKUSLE BATUKO DIRA URKIZUKO PARKIAN, Lore eta Landarien I. Azokan. Udalak, Debemen Debabarrenako Nekazal Elkar-teak eta Eibar Merkataritza Gu-ne Irekiak antolatutako ferixia 09.30etan hasiko da eta 14.00ak arte egongo da martxan, horretarako propio iturriraxa dagan parkian ipiñiko dittuen karpetan. Parte-hartzailliak honetxek izango dira: Bas Enea Mintegiak (Zarautz), landare ekologikuekin; Islaya (Errente-



ria), gizen eta bizikorrek; Aranburu Mintegiak (Agiñaga-Usurbil), zuhaixka eta sasoiko landariekin; Irun Bonsai (Irun), bonsaiekin; Zunoair (Oiartzun), sasoiko eta bildumarako landariekin; Endanea Elkartea (Hondarribia), sasoiko landariekin; Urtinea (Usurbil), sasoiko landariekin; eta Flores Blanca (Eibar). Horrez gain, azokia aprobetxauta merkataritza bidez-

kuari eskindutako postua be egongo da martxan.

Aittatutako erakusliak euren lore eta landariak salgai ipiñiko dittue eta, hortik aparte eta jarduera osagarri modura, umiendako Natura Lantzen izenburuko taillarra antolatu dabe, 11.30etatik 13.30etara, bertara doiazan umieri landariak nola hazi eta beste hainbat kontu azaltzeko asmuarekin.

## Herri programia presentau dabe

**EIBARKO EZKER ABERTZALIAK MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDIETAN PARTE HARTZEKO ASMO SENDUA** agertu dau aste honetan bertan, eguaztenian egindako agerraldixan. Eibar Sortu osatuko dabenen izenik ez dabe aurreratu, bestiak beste auzitegi gorenaren erabagixa zein izango dan zain daguazelako, baiña apirilla hasierarako zerrendaren aurkezpena egitteko moduan izango dirala pentsatzen dabe eta bertan "aurpegi barrixak" egongo dirala aurreratu eben. Bittartian, legez kanpo daroiazan 8 urtiotan biharrian segidu dabela gogora ekarri eta hauteskundietara begira landutako herri programaren oiñarrixan oin dala lau urte aurkeztutakuan eguazten lerro nagusixeri eusten detsela azaldu eben. Azken lau urtiotan Udalak egindakueri errepassua eginda, barriz, "Errebalendako beste aukera batzuk badaguazela, etxebizitza arluan lidertzarik ez daguala eta Txonta egin bihar ez danaren adibidia dala" azpimarratu zittuen.

Herri programia lantzen 50 lagunetik gorak jardun dabe eta euren biharra "kontrastautu eta dokumentaziño ofiziala erabillitta landuta" egindakua dala argittu nahi izan dabe. Bestalde eta he-



Zerrendak apirillan aurkezteko asmu daka ezker-abertzaliak. / S.H.

rritarren iritzi eta proposamenak ezagutzeko asmuarekin inkestia banatuko dabe buzoietan. Erantzunak jasotzeko kalian buzoiak ipiñiko dittue eta bestela [www.herriprograma2011.net](http://www.herriprograma2011.net) helbidian be bete leike.

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. 943 201095 Fax: 943 202564

- Fliskolabisa
- Talde Argazkia
- Umeentzako  
Tailerak
- Bazkaria
- BUZGARRIAK
- Zirko-Tailerak
- Bingo  
Herrikoia
- DJ-a



GMM  
 Bazkaria:  
 PAELLA  
 ERRAL DOIA!!  
 Edariak  
 Postrea  
 eta Kafea

Bazkide  
Jaitza!!!

# Apirilak 9

**Armeria Eskolan**

Sarrerak:  
nagusiak 10 €  
umeak 5 €

...eta kittoln salgai  
martxoaren 7tik aurrera

Ordutegia: 12etatik 20etara



asteko

16

datua

denda edo komertzio dittu Eibarrek milla biztanleko, Euskal Komunitate Autonomoko batz bestekuaren baiño zeozer gehixago. Datu hori eskindu dau LKS enpresak Plan estrategikuari buruz egindako txostenak.

## PSE-EEK hauteskundietarako zerrendia presentau dau

AURREKO ASTIAN, EGUEN ARRATSALDIAN, COLISEUAN EGINDAKO EKITALDI-XAN PRESENTAU EBAN PSE-EE alderdixak udal hauteskundietarako zerrendia. Oingo alkate Miguel de los Toyos zerrendaburuaren atzetik listia osatzen dabene beste 20 lagunene artian, oin momentuan herri maillan zein kanpuan politikan biharrian dagauzenen aldamenian oso esparru diferentietatik datozen beste hainbat lagun tartekatu dittue. Holan, bigarren postuan independente modura agertzen dan M<sup>a</sup> Jose Telleriaren atzetik doiazenak honetxe dira, orden honeri jarraituta: Arcadio Benitez, Esther Kareaga (independientia, Kareaga bitxitegiko bihargiña, Eneko Andueza, Miren Gallas-tegi, Jose Luis Vallés, Ana Ro-



Miguel de los Toyosek aurkeztu eban 21 laguneko zerrendia. / SILBIA HERNANDEZ

driguez, Pedro Escribano (independientia, saltzaillia eta San Kristobalgo jai batzordeko kidea), Nerea Azpiazu, Daniel Santos (Rodisako bihargiña eta enpresa-batzordeko idazkarixa CCOO sindikatuarekin), Gabriel Saro (Historian lizentziatua eta Zientzia Politikue-tan doktore), Karmen Retenaga, Marisa Larrauri, Alberto

San Emeterio (tabernari, irratiesatari eta DJa), Ana Telleria (Ekonomian lizentziatua, Jaur-laritzan Etxebizitza Sailleko aholkularixa), Elena Lopez de Gereñu (Informaziño eta Enpresa zientzietan lizentziatua, Jaur-laritzako aholkularixa), Antonio Jimenez (Nagusilane-ko arduraduna), Juan Alberdi, Iñaki Arriola eta Libe Betolaza.


## Hausnarketa eta jaixa bat eginda

TOPAGUNEAK ETA EUSKALDUNON ELKARTEEN MUGIMENDUA OSATZEN DABE 96 ALKARTIAK EUSKARAZ BIZITZEKO HAUTUA egin dabene euskaldunen bilgune antolatu modura eragitten segitzeko konpromisua berretsi eben zapatuan, Bilbo-ko Alhondegian ospatu eben "XXI. mendeko Euskaldunon Elkarteene Mugimenduaren Kongresuan". Azken hillebetiotan gogoeta prozesu parte-hartzaille batian murgilduta egon ostian, "XXI. mendeko euskaldunon elkarteene mugimenduaren oinarriparrak" izenburuko txostena onartu eben bilkuran egindako botaziñuan. 200 bat lagunene parte-hartzia euki eban bilkura oiñ arte egindakuen artian jendetsuena izan zan eta, antolatzaillien berbetan, "gogoeta jaixarekin uztartzeko topaketa" izan zan asteburukua eta arratsaldera arte luzatu zan jaixan, bestiak beste, Udane Goikoetxea, Igone Amesti, Eneko Barberena, Jon Gurrutxaga, Manex Agirre, Gilkitxaro antzerki taldea, Asier Serrano, Patxi Zubizarreta, Kristina Mardaras, Mikel Urbeltz, Rafa Rueda eta Porrotx egon ziran.



## Bihargiña hil da aldamiotik eroritta


EGUAZTEN GOIZIAN 36 URTEKO BIHARGIÑA HIL ZAN, ALDAMIOTIK BEHERA 12'5 METROKO ALTUERATIK lurrera eroritta. Ezbeharru nola gertatu zan ikertzen dihardue, baiña itxura danez hildakua beste obra baterako materixala batzera juan zan eta aldamiot zati bat apurtzian gertatu zan istripua. Aldamixua Urki kaleko 17-19 zenbakixetan dago ipiñitta, fatxadia konpontzeko, baiña bertako biharrik amaittuta eguazenez aldamiot kentzen hasitta eguazene. Edozelan be, bihargiña Txaltxa Zelai kalera, epaitegixaren atzeko partera erori zan. Hildakua sortzez Ekuadorrekua zan eta Eibarren azken 9 urtiak emon dittu, enpresa berarendako biharrian. Istripua gertatu eta segiduan alkartasun adierazpenak eta salaketak plazaratzen hasi ziran bestiak beste ordezkari politiko zein sindikalak.



**MAITE APAOLAZA AGIRRE**  
(2011-II-18)


*ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira  
GURE ARTEAN.*

Zure koadrilakoak



## Jardiñetako eskillaretara bisitan

**ASTELEHENIAN ALKATIA JARDIÑETAKO ESKILLARA MEKANIKUAK IPINTZEKO BIHARRAK IKUSTEN** egon zan, Pedro Luis Rio Oyarbide Gipuzkoako gobernu ordezkariarekin batera. 1.360.826 euroko aurrekontua daken biharrak estatuko funtsak emondako diruarekin pagauko dittue eta inbersiñuetan laguntzeko planaren barruan presentautakuen artian hori da proiektorik karuena.



## Kamioiak oztopatutako trafikua

**MARTITZEN EGUARDIXAN AUTO ILLADA LUZIA SOR-TU ZAN URKIZUN**, errepide erdixan kamioia hondatu eta trafikua oztopatu ebalako. Kamioia Azpiri eraikiñaren pareko errebuelta hartzera zoianian ez atzera ez aurrera, bertan geratu zan mugidu ezinda eta, Arraguetarako norantzan zoiazan ibilgailuak pasau ezinda geratu ziran, kamioiak errepidiaren zati haundixena okupauta zekan-eta. Gaiñera, illaran lehelengua autobusa zan eta kamioia mugidu bittartian espalo gaiñera igota aurrera egiñ ahal izateko altxagarriak ipintziaz gain, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren karteletako bat moztu bihar izan eben, tartia zabaldu eta trafikua lehenbailehen bere onera ekartzeko ahalegiñetan.



## Libiako herritarrekin alkartasuna

**EGUAZTEN ARRATSALDIAN ERRETRATUAN IKUSTEN DITUZUENAK UNTZAGAN ALKARTU** eta, arabieraz eta euskeraz idatzitako pankarta bi zabaldua, Libiako herritarrekin alkartasuna adierazi zetsen, bertan azken egunotan gertatzen diharduan sarraskixa salatziarekin batera.

## anzorik anzo




## Ardantzako tren geltokixa zabalik

**Zapatuan inaugurau eben Ardantza tren geltokixa Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailburuak eta Miguel de los Toyos alkatiak.** Udaletxiaren atzealdian dagan geltokixa egitteko 10 millioi eurotik gora erabili dittue eta ekitaldixaren hasieran geltokixaren teillatu gaiñeko pasealeku barrixa zabaldu eben eta jarraixan geltokira bajau ziran agintarixak. Geltokixaren atarixa San Andres pasealekuaren maillan dago, Juan Gisasola kaliari begira. Nasara sartzeko eskillarak zein igogailua erabili leikez. Txartelak saltzeko eta baliogabetzeko makiñak, gela teknikuak eta geltokiko buruaren bulegua be atarixan dagoz. Inauguraziñua egiñ eta egun pare batera, Ardantzarako "hobekuntzak" eskatu detsaz alkatiak Jaurlaritzari: San Andres pasialekura emoten daben aldian erittik eta hotzetik babesteko estalkiren bat ipintzia eta bidaiarixendako komunak egittia, oin momentuan bakarrik bihargiñendako komunak dagoz-eta.

## Estaziñuan lehelengo harrixa

**Eguaztenian, barriz, lehen harrixa ipiñitta ekin zetsazen ofizialki Estaziño kaleko geltokixa eraberritzeko biharrerri.** Arriolak eta De los Toyosek harrixa ipiñi aurretik, Cesar Gimeno Euskal Trenbide Sarea-ko presidente ejekutibuaren azalpenak entzun zittuen: biharrak urtebeteko iraupena izango dabe, 3.104.327 euroko aurrekontua, Construcciones Moyúa-Azvik egingo dittu eta zatika egitten juango dira, zerbitzuan etenaldirik ez egoteko. Halandabe, biharrak eragingo dittuen eragozpenengaittik alde aurretik barkamena eskatzeko aprobetxau eben ekitaldixa.



Ez gaude, ez, "banku" eta "etikoa" berbak bata bestearen aldamenean ikustera ohituta, baina gure aurreiritziak baztertu eta bestelako ikuspegia izan dezagun gonbidapena luzatzera etorriko zaigu Fiare izeneko proiektuko kidia dan Periko Etxaburu. Beste herrialde batzuetako esperientziaren bidetik jaio den proiektua azaltzeko hitzaldia emango du datorren astean, eguaztenean, 19.00etatik aurrera Portalean. Eibarren proiektuarekin interesatuta dagoen taldearekin bildu aurretik egon gara berbetan berarekin, gehienontzat ezezaguna den bankaren kontzeptu horren nondik norakoak zeintzuk diren ezagutzeko jakinminez.

## PERIKO ETXEBURU / Banku Etikoaren Fiare proiektua:

# "Konpromiso sozialak gidatzen gaitu gure jardunean"

**- Banku bat etikoa izatea posible da, bezar. Hitzaldian azalduko duzun proiektu hori nolako da?**

Ez gaude beste edozein bankuk beharra egiteko duen modutik horren urrutu, baina alde nabarmen bat dago esku artean daukagun diruari ematen diogun erabilerari begiratuta. Izan ere une honetan agentzia gara, baina gure bezeroen diruarekin inbertsioak egiten ditugu, etekinak jasotzen dira, interes batzuk ematen dizkiegu bueltan... Hori bai, inbertitzeko orduan merkatuan dauden balio seguruenetara jotzen dugu, hau da, estatuaren obli-

gazio, zedula eta horrelakoetara. Baina justizia soziala gure helburu nagusienetako bat izanda, gizartean eragin positibo eta eraldatzailea izango duten jarduera ekonomikoak finantzatzen ditugu, hau da, enpresa, jarduera eta proiektu sozial, ekologiko, kultural eta solidarioak.

**- Nolakoak dira zuen bezeroak?**

Jende solidarioa izaten da. Diru bat daukate eta guregana etorri ohi dira, geuk diru hori galduko ez dugun konfidantzarekin, geuk erabakitzen ditugun proiektuetan erabili dezagun. Izan ere, geure beste printzipioetako bati jarraituta, gardentasuna nagusi da gure jarduera guztian eta finantzatutako proiektuak eta haien gaineko informazioa, diru-kontuak eta beste guztiak edozeinen eskura daude, nahi duenean askatasun osoarekin konsultatzeko moduan.


**- Solidarioak izanda ere, gaur egun ez da erraza izango jendearen konfidantza hori irabaztea, are gutxiago norberaren herrian etxetik gertu bulegorik ez dagoenean...**

Bilbon aste osoan zabalitzen duen bule-

goa dago, gainera goizetik eta arratsaldetik egoten da zabalik eta Errenteria eta Tolosan ere bagaude, ordutegi aldetik horrenbesteko erreztasunik eskaini ezin badugu ere. Hala ere, tramitazio eta horrelakoetan ahal dugun guztia errazten diegu egin beharrekoa, besteak beste telefonoa eta internet erabilia. Bestalde, guretzat oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzatik jaso dugun babes, 2010eko martxoan banku etikoaren inguruko hausnarketa bultzatzen duen ez legezko proposamena onartu zuen-eta.

**- Proiektuan parte hartzeko interesa daukanak, zer egin dezake?**

Proiektua zabalitzen joateko prozesuan sartuta gaude, gerora kooperatiba izateko asmoz. Parte hartu nahi duenak geroko kooperatiban kapital sozialaren partaide izango diren harpidetza-ekarpenak eginez, edo Fiare-Banca Popolare Etica eragileak egindako hitzarmenaren ondoriozko edozein produkturen harpidedun eginez. Informazio guztia [www.proyectofiare.com](http://www.proyectofiare.com) helbidean kontsultatzeko moduan dago.



IGELTSERITZA

**CAMILO  
ALVAREZ**




- Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
Etxeko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



**Egiguretarren, 18**

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Neurri askotxo izan dira azken aldixan autuen eta hauen abiaduraren inguruan. Espainiako gobernuak autopistetan gehixengo abiadura 120tik 110era jaistiarekin batera, proposatu da be beste neurri bat, azken hau segurtasunaren mesedetan: herri barruan 30 kilometrotik ez pasatziarena. Komenigarria ikusten dogu?

## Zelan ikusten dozu herri barruan gehixengo abiadura 30era jaistia?



**JOSE Mª MAKAZAGA**  
60 urte  
langabezixan

Eibarren ez dot uste egingarria danik. Auto illarak sortzen dira 40 km/orduko juanda; orduan, 30 km/orduko ipiñi ezker mugia, kasa sortuko zala uste dot. Arazia larrixagua da zebrabidiak ez dirala errespetatzen, ez gidarixak ez oiñez doiazanak. Ez dot uste neurrixori konponbidia danik.



**SONIA FERRERAS**  
37 urte  
langabezixan

Ondo ikusten dot. Oin 50 km/ordukua da gehixengo abiadura, baiña gitxik errespetatzen dabe. Igual 30era ipiñitta, jendia 40/50-eko abiaduriaz juango da eta, frenau bihar izan ezker, errazagua izango da. Umiak errepidera bapatian agertu leikez eta kotxiak frenatzeko astixa izan bihar dau.

**JESUS Mª IRAOLA**  
59 urte  
bihargiña

Ez dot uste arazia abiadura danik: 50 km/ordukua benetan errespetatuta, gidarixok zebrabidietan geldittuko bagiña eta jendia zebrabidietatik pasau ezker, arazorik ez zan izango. Eibar 30 km/orduko abiaduraz pasau biharko bagenu, trafiko arazo larrixak izango lirakez.



**NAIA PEREIRA**  
28 urte  
etxeoandria

Idea ona da. Halanda be, zebrabidiak gehixago errespetau biharko zirala uste dot. Sarrittan denbora mordua emoten dot zebrabidien zaiñ eta kotxe asko ez dira gelditzen. Kotxiak polixago juanda, umeren bat urten ezker errepidera-edo, azkarrago frenau leikela uste dot.



PREST



**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**ATE IREKIAK**

ARETO NAGUSIAN  
Elkarri buruztik  
lortu erreal!

**Goi Eskola Politeknikoa**

**ARRASATE MARTXOAK 17** osteguna 17:30

**ORDIZIA MARTXOAK 26** larunbata 11:00

**Gastronomia Zientzien Fakultatea**

**VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12**  
larunbata, 10:30 Europa Biltzar Jauregia.



## 34. Antzerki Jardunaldiak

# TELOIA ia hillebete biko BIHARRIAN

**P**rogramaziñua, bestalde, martxuaren 14an hasiko da eta apirilaren 19xan amaittuko; bittarte horretan, konpaina profesionalen hamazortzi lan eta talde unibersitarixuen beste lau aurkeztuko dira 25 emonaldixetan (batzuen kasuan, funziño bat baiño gehixago eskintzen dabela-ko). Funziñuak, azken urtietan egin dan legez, Coliseuan eta Hezkuntza Esparruan (Unibersidadia) banatuko dittue, Coliseuan lan batzuk gehixago emongo badira be.

Martitzenian udaletxeko pleno aretuan egindako aurkezpenian obra guztien errepasua egiñ eben antolatzailliak; horrez gain, aurrekontua 165.000 eurora jaitsita be, "sarreraren preziumeri eusteko egindako ahalegiña" nabarmendu nahi


izan eben. Sarrerak aurrez Coliseuan salduko dira, gitxi gorabehera aurreko urtietan moduan: martxuaren 5ian, zapatuan, goizeko 10.00etatik arratsaldeko 16.00ak arte; eta hurrengo egun bixetan, 6xan eta 7xan, eta hillaren 12xan eta 13an, lau egun horretan 10.00etatik 14.00etara. Horrez gain, funtziño egunetan antezzlana amaittu eta jarraixan hurrengo funtziñuetarako sarrerak erosteko aukeria izango da eta ohiko salmentia antzokiko leihatillian, funtziñua hasi baiño ordu-bete lehenago hasitta.

### Otaola 27ko proiektua


Hillaren 14an, astelehenian, A Coruñaiko eme2 Producciónsek "Tengamos el sexo en paz" eskinduko dau, Dario Fo izen haundiko egilliaren lana eta

Mercedes Castrok antzeztuko dabena; hurrengo egunian, hillaren 15ian, Cadizeko La Zarranda etorriko da barru gurera, oinguan "Nadie lo quiere creer" umorezko lana eskintzeko. Eguaztenian, bestalde, Euskal Herriko produkziño bat ikusteko aukera izango dugu, Gipuzkuako Txalo Producciones eta Bizkaiko Vértigoren "100 m<sup>2</sup>" lana.

M<sup>a</sup> Luisa Merlok, Miriam Díaz-Aroca eta Jorge Roelasek osatuko dute obra horretako hirukotia. Eguenian, Antzerkixa Zinian arluan, Asier Errasti Ikusentzunezkuen azken ediziño-ko lanak ikusteko aukeria izango da eta, hurrengo egunian, barixakuan, Madrilgo Arrojoscénicok "El retablo de las maravillas" lana erakutsiko dau.



Euskarazko lau lan jasoko dittue aurtego jardunaldixak, "Errautsak" tartian.



## TERESITA LAPEYRA GUIASOLA

(2011ko otsailaren 23an hil zen, 68 urterekin)

*Senideen izenean,  
eskerrik beroenak zuen maitasuna erakutsi  
eta gure ondoan egon zareten guztioi.*



Zapatuarekin batera, umiendako antzerkixaren ordua etorriko da Madrilgo Cuarta Pared taldiaren eskutik. "Ojos y cerrojos" lana eskinduko dabe. Txiki-xenek beste aukera bat be izango dabe antzerkixaz gozatzeko: hori apirilaren 9xan izango da, Euskal Herriko eta Kataluñiako proposamen bateratua-rekin. Txalok eta La Pera Llimonera Teatret Ali. Amona Kandelaria eta alfonbra hegalaria eskinduko dabe, orduan be 17.00etan. Umiendako ez, baiña badago beste lan bat eskoletakuendako eskinduko dana: Pikor Teatrotoren "XL Town" helduentzako 20.30xetan emotiaz gain, goizian beste saio bat eskinduko dau, 11.00etan.

#### Aurreko proiektuak

Konpañia profesionalen batera, talde unibersitarixuen lanak eskinduko dira, urtero moduan. Oinguan Teatrobriek "Días mejores" antzeztuko dau martxoaren 20xan, domekan, holan jardunaldixetako lehengo astiari amaieria emonez. Eta Alcalá de Henareseko Unibersidadeko antzerki aulak lan bi aurkeztuko dittu Eibarren: apirilaren 4an "En que se le haga merced" emongo dabe eta hurrengo egunian, apirilaren 5ian, "Historia de España en 70 minutos".

"Bombazo" moduan kalifikatu eban Juan Ortegak "Contra Acciones" lana, apirilaren 6xan Caralladak antzeztuko daben lana: lan munduak jendiarengan dakan eragiñaren inguruan hausnartzen da komedia beltz horretan. Baiña badira beste lan batzuk be ziurtatuta dakenak arrakastia: holan, martxoaren 21ian emongo dan "El ma-

estro de danzar" lanak zuzeneko musikia eskinduko dau, Teatro Defondok eszenaratzen daben Lope de Vegaren lanian. Eta, zelan ez! eziñ aittatu barik laga Teatro Corsarioaren terrorezko titereen "La maldición de Poe", hillaren 22xan eskinduko dana. "Luces de bohemia" klasikua aurkeztuko dau Teatro del Templek hillaren 25ian, Zaragozako Gato Negrok "Cabaré de caricia y puntapié" erakutsiko dau apirilaren 2xan... eta beste hainbat izango dira guztien gustuak asetzeko moduan.

#### Euskerazko lau lan

Euskerazko produkziñuari dagokixonez, lau lan dastatzeko aukeria izango da jardunaldixotan, aurreko urtiotan baiño lan bat gehixago, "batez be, Korrikarekin alkarlanian egin-dako biharrari esker". Hillaren 27xan "Presidente andreak" lan arriskutsua izago dogu ikusgai, Nexoteatro bizkaitarren eskutik; handik hiru egune-

ra, hillaren 30ian, lehen aittatutako Pikor Teatro arabarraren "XL Town" eskinduko da Coliseoan. Hurrengo egunian, "Sekula bai" lana ikusi ahal izango da Bizkaiko Abar produkzioaren eskutik, Mikel Losada Ermuko aktoriaren parte-hartziarekin; aipatutako funziño hori Eibarko Udalak eta Eibarko AEK-k programau dabe Korrikaren inguruan. Eta laugarren lana han eta hamen arrakastia lortu daben "Errautsak" da, Dejabu Papin Laborategixaren, Le Petit Théâtre de Pain-aren eta Artedramaren artian sortutako lana. Azken hau Igor Elortza eta Unai Iturriagaren lana da, Ander Lipusek antzezten dabena beste bost lagunekin. "Hámster" lana, bestalde, Bizkaiko Juanjotero Producciones-ena bada be, gazteleraz eskinduko da apirilaren 8xan.

Ixa hillebete bi dittugu, beraz, beste mundu batzuetan sartu eta buruari buelta batzuk emoteko gozaten dogun bittartian.

## EGITARRAUA

- Martxoak 14. 20.30. Unibertsitatea.  
"Tengamos el sexo en paz" (Eme2 Produccións).
- Martxoak 15. 20.30. Coliseoa.  
"Nadie lo quiere creer" (La Zaranda).
- Martxoak 16. 19.00 / 22.00. Coliseoa.  
"100 m" (Txalo Producciones-Vértigo).
- Martxoak 17. 17.30 / 21.00. Unibertsitatea.  
ANTZERKIA ZINEMAN: Asier Errasti Ikusentzunezkoen Jaialdiko laburmetraiak.
- Martxoak 18. 20.30. Unibertsitatea.  
"El retablo de las maravillas" (Arrojóscenico).
- Martxoak 19. 17.00. Coliseoa.  
"Ojos y cerrojos" (Cuarta Pared).
- Martxoak 20. 20.30. Coliseoa.  
"Días mejores" (Teatrobrik).
- Martxoak 21. 20.30. Unibertsitatea.  
"El maestro de danzar" (Teatro defondo).
- Martxoak 22. 20.30. Unibertsitatea.  
"La maldición de Poe" (Teatro Corsario).
- Martxoak 24. 17.30 / 21.00. Unibertsitatea.  
ANTZERKIA ZINEMAN: "Máscaras".
- Martxoak 25. 20.30. Coliseoa.  
"Luces de Bohemia" (Teatre del Temple).
- Martxoak 27. 20.30. Coliseoa.  
"Presidente andreak" (Nexoteatro).
- Martxoak 28. 20.30. Unibertsitatea.  
"...Los corderos" (Histrión Teatro).
- Martxoak 30. 11.00 / 20.30. Coliseoa.  
"XL Town" (Pikor Teatro).
- Martxoak 31. 20.30. Coliseoa.  
"Sekula Bai" (Abar Produkzioak).
- Apirilak 2. 20.30. Coliseoa.  
"Cabaré de caricia y puntapié" (El Gato Negro).
- Apirilak 4. 20.30. Hezkuntza Esparrua.  
"En que se le haga merced" (Aula Teatro UAH).
- Apirilak 5. 20.30. Coliseoa.  
"Historia de España en 70 minutos" (UAH).
- Apirilak 6. 20.30. Coliseoa.  
"ContraAcciones" (Carallada Show-Prem Teatro).
- Apirilak 7. 17.30 / 21.00. Unibertsitatea.  
ANTZERKIA ZINEMAN: "La Bohème de Puccini".
- Apirilak 8. 20.30. Coliseoa.  
"Hámster" (Juanjotero Producciones-Sala Triángulo).
- Apirilak 9. 17.00. Coliseoa.  
"Ali" (Txalo Produkzioak-La Pera Limonera).
- Apirilak 12. 20.30. Coliseoa.  
"¿María?" (En Blanc).
- Apirilak 14. 20.30. Coliseoa.  
"Errautsak" (ArteDrama-Dejabu Panpin L.-Le Petit Theatre de Pain).
- Apirilak 15. 19.00 / 22.00. Unibertsitatea.  
"Tres" (Mutis Producciones).
- Apirilak 19. 20.30. Coliseoa.  
"Repblicados" (Teatro Interior).

TEEN-  
AJEA

Gimnasia erritmikoan hasi zen 4 urterekin eta 17 bete arte maila ezin hobean jardun zuen. Behin kirola lagata, antzerkiak hartu zuen haren tokia eta, behin interpretaziora emanda, telebistara ere egin du jauzia. Gaur egun Goenkaleko protagonistetako bat da. Murrieta familiako Eider neska gotikoaren paperean. Gauza berriak probatzeko gogoia du.

**YLENIA BAGLIETTO, aktorea:**

## “Naizen modukoa naiz gimnasiari esker”

**- Zer moduz Goenkalen? Lan gogorra da benetan?**

Egunero 17 bat sekuentzia filmatzen dira eta aktore bakoitzak 5/6 izan ditzake, beti ere gidoiaren eta egunaren arabera. Baina, hori bai, diziplinatua izan behar zara derrigorrez.

**- Gimnasia erritmikoan jarduteak lagunduko zizun horretan, edo ez?**

Asko; gauza asko sor dizkiot kirol modalitate horri, bai disziplina arloan baita interpretazioan. Jendearen aurrean jarduteak eta zezozer espresatu nahi izateak gauza biak lotzen ditu. Lehen gorputzaren bidez adierazten nuena orain hitzen bidez egiten dut.

**- Ikasketak ere bide horretatik bideratu dituzu, ezta?**

Bai eta horrek bizkaitartu nau neurri batean, han ikasi bainuen. Nahiz eta orain alde batetik bestera, Donostiatik Bilbora nabilen, Eibarren egoteko aukera ere izaten dut. Dena dela, gauza bat dira ikasketak eta beste bat lanean jardutea: ikastaroak egin ditut kamara aurrean, baina ikasi benetan multikamararen aurrean ikasi dut, gauza mordo zeureganatzerira iristen zarelako.

**- Antzerkian jardun duzu batez ere orain arte. Aukeratzekotan, zer duzu nahiago: antzerkia edo telebista?**

Ezingo nuke erabaki; biekin jarraitzeko asmoa dut. Antzerkian hilabetetan prestatutakoa antzertzen duzu une batean eta telebistan, ordea, “ikasi, egin eta ahaztu” lerroari jarraitzen diozu, baina hain da erakusleihoa ez nukeela nahiko aukera galtzea.

**- Baduzu idolorik edo lan berezirik interpretatu nahiko zenukeenik?**

Catherine Zeta Jones gustatu zitzaidan “Chicago”-n; ezin dut ahaztu. Eta Madrilan egin nuen casting-a lan horretarako.

**- Interpretatzeaz gain, sortzaile ere bazara...**

“Bla, bla, bla” lana idatzi eta zuzendu nuen. Horrez gain, bigarren urtea da Ugaoko adineko emakume batzuekin lan bat prestatzen diharduguna.

**- Etorkizun motzean, zein asmo duzu?**

Apirilera arte Goenkaleko grabazioekin jarraituko dut. Eta Glu-Glu konpainiarekin lan berria estreinatu dugu: Elgoibarren izango gara apirilaren 8an.

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

**etxola**  
**JATETXEA**

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

*Aurreko asteko barixakuan agurtu zituzten Alemaniatic etorritako lagunak Ignazio Zuloaga batxiler institutuko ikasle eta irakasleek. Baina "agur" baino gehiago, "laster arte" esan zutela zuzenagoa litzateke, pare bat aste barru eibartarrek eurenera bisitan joango zatzaizkielako. Eta horrela, batzuen eta besteen astebeteko egonaldiarekin, ikastetxe bien arteko elkartrukaketa programa beteko dute berriz ere, herrialde bien arteko loturak hestututa eta elkarri buruzko ezagutza aberastuz.*

## Alemaniano lagunei bisitan joateko prest

**E**txera bueltan eramango zituen autobusa hartu baino lau ordu lehenago, bazkaltzen hasteko prest harrapatu genituen ikasle eta irakasle alemaniarrek institutuan, gure artean emandako egun ia guztietan euria lagun izan ondoren, azken egunean agertu zen eguzkiaren izpiak aprobetxatzen. Gaztelera zoko klaseak ematen dituzte Sandra Koch eta Solene Maier irakasleak 16-18 urte bitarteko 40 ikasleri laguntzen egon dira otsailaren 19tik 25era bitarteko iraupena izan duen bidaiari. Balingen Gymnasium institutuak Eibarkoare-

kin elkartrukatzeko programari ekion ziola lau urte beteko dira aurten eta azken hiru bidaietan parte hartu du lehenengoak. Irakasle biak bat datoz horrelako esperientziak "oso aberasgarriak" direla esatean. Ikasleentzat ez ezik, eurentzat ere onuragarria dela azpimarratu digute, "besteak beste ikasleak klasetik kanpora nolakoak diren ikusteko aukera daukagulako eta eurek ere gu beste modu batean begiratzen hasten dira".



Sandra Koch eta Solene Maier, gaztelera irakasleak Alemanian.



Hemen eman dituzten egunetan ikasle atzerritarrek eibartarren familiekin bizitzen egon dira eta Alemaniara joaten direnean, eibartarrak ere hala hartuko dituzte. Zazpi egunei etekin ikaragarria ateratzen jakin dutela begibistakoa da, ikusi dituzten tokiak izendatzen hasi eta Lekeitio, Bilbo, Baiona, Biarritz, Zarautz, Donostia... horrela, botepronto-

an botatakoekin osatzen doan zerrendari begiratuta: "Euskal Herriari buruzko ikuspegi zabalena izan dezaten ahalegintzen gara irteerak antolatzerako orduan. Etorri aurretik hemengo historia, ohitura eta bestelakoak lantzen ditugu, ailegatzean zerbait jakin dezaten eta eibartarrekin gauza bera egiten dute hemengo irakasleek". Hara joatean zer erakutsiko dieten ere nahiko argi daukate: "Gu hegoaldean bizi gara eta inguruko hiriak erakutsiko dizkiegu, Konstanzako lakua, Zeppelin museoa eta beste hainbatekin batera". Baina bidaiari horren ingurukoak Alemaniatic bueltan, eibartarren ahotan entzuteko aukera izango dugu. Zain egongo gara.



## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

**HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK**

Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hartz Klinika**

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortza, konplexioa eta konfiantza handien kontrola...

943 20 18 51

**m bista eder**



Infinarrak gazteku egiten gaitu

implante eta Hartz-Estetikaren aditua

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**

Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hartz-klinika**

**egunero**

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxes - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es

## Estetika klinika




**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa



Egungoan, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENENKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa  
Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA  
Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ  
San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak


- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia  
**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**PODOLOGIA**  
Ereiko Klinika  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)  
BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050  
ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746



**PODOLOGOA**  
Mainer Lopez Etxebarria  
Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88  
65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO  
Iñaki Rivero Zabaleta  
Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)  
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA  
**Arrate Garitaonandia**  
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK  
Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa  
**Ψ**  
Oscar Mondragon Lili  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)  
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin  
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Zapatuko koko-dantzetan Torredenbarrako  
pastorets-ak eta bastoners-ak hartu zuten parte.  
/ MAIALEN BELAUSTEGI



## ARATOSTE ASTEBURUARI ekiteko gertu

**Kaldereruak: 20 urtian bisittan**

AURTEN 20 URTE BETEKO DIRA KALDERERUAK EIBARREN BERPIZTU ZIRALA, Kezkaren eskutik. Aurretik be, 1930eko hamarkadan kaldereruak Eibarren urtetzen eben, baiña gerria amaittu ostian ez zan gehixagotan talderik urten, 1991an Kezka dantza taldiak ohiturari barriro heldu eta kaldereruen kalejiria berreskuratu eban arte. Kezkakuak gogora ekarri dittuen berberi jarraituta, "oin dala hogeit urte, Pablo Uribetxeberria zan Kezka dantza taldeko arduraduna, eta berak etxian jaso zekan Eibarko kalderero zaharren barri. Gurasueri entzun zetsazen gerra aurreko kalderero konparsaren kontuak eta baita kantuak be. Bestiak beste, antolaketa lanetan Arantza Arrieta eta Arantza Uriguenen laguntzarekin, informaziñua bildu, sasoi bateko kaldereruak ezagutu zittueneri alkarizketak egin (tartian Jose Etxeberria "Querido") eta Eibarko kaldereruen konparsia berreskuratu eben". Horri esker 1991ko Aratustietan kaleratu ziran Kezkaren kaldereruak. Urtiekin herriko beste talde batzuk be animau eta ospakizunian parte hartzen hasi ziran. Holan, gaurko kalejiran Kezkarekin batera parte hartuko dabenak ...eta kitto! Euskara Elkar-tea, Txolarte, Ustekabe, Lagun Taldea, Untzagako jubilauren abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikiritixa eskolakuak izango dira, jakiña, animatzen diran gaiñontzeko herri-tarrekin batera. Ohiturari jarraituta eta kaldereruak trenian aillegatzen ziraneko sasoi

goguan, Urkizuko parkian ekingo detse ibilbi-diari 19.30xetan. Holan, kantu eta dantzen artian Untzagaraiño aillegauko dira, 21.00ak aldera Aratostietako Pregoia entzuteko denporiakin. Urtero pregonerua kanbixatzen juaten da eta aurten Lagun Taldeako ordezkariak irakorriko dabe pregoia, modu ofizialian Aratostiak iragarritta. Ostian, 21.30xetan herri afarixa egingo dabe Untzagan ipiñi daben karparen barruan.

**Nahixan taldieren kontzertua**

BARIXAKU ERREGULARRARI AGUR ESAN AURRETIK baiña, rock kontzertu batekin gozatzeko tartia be eukiko dabe animatzen diran guztiak. Izan be, 23.00etatik aurrera Nahixan taldekuak euren bigarren diskua presentatzen egongo dira karpán bertan. Taldeko Aitor Sologai-stoa eibartarrak kontau deskunez, "lehelengo diskuaren ildotik doia bigarren hau be, baiña igual rockeruagua urten jaku, nerbixo gehixago daka lehelengo lanarekin alderatzen hasi ezker. Dana dala, lehelengo disko-



Aurreko asteburuan, Kezka dantza taldekuen eskutik hasi genduazen Aratostiak gurian. Koko-marruen konparsak eguraldixa alde baiño kontra euki eban Otaola-Kiñarra auzuetako kalejiran zapatuan, batez be eguardittik aurrera, baiña edozelan be animoso segidu zetsen aurreikusittako egitarauari eta basarrixetatik kalera bajauta, illuntzeko kalejirarekin jaixetarako motorrak ederto berotu zittuen, oinguan Kataluñatik etorritako dantzarixak lagunduta, gaiñera. Eta gaur hasiko dogun asteburuaren aurretik, atzoko Eguen Zurixan ikastetxiak izan ziran jaun eta jabe, eskoletan bertan eta baita kalejiretan be. Eta, zelan ez, eurekin batera jaixari musikia ipiñi zetsen Lisker taldekuak, Astixaren eskutik taillarrak martxan egon ziran bittartian.

ko kanziñuak be joko dittugu. Gaurko kontzertua politta izan leikiala pentsatzen dogu, ilusiño haundixa dakagu Eibarren lehelengoz jutzen izango garalako, alde horretatik Udalarri eskerrak emon nahi detsaguz horretarako aukeria emon deskulako". Nahixan taldia 2008xaren amaieran sortu zan eta, "gaztia" izanda be, martxa onian dihardu bere bidia egitten: 2009xan bertan grabau eben lehelengo diskua eta gaur presentauko dabena, barriz, iazko martxuan grabautakua da. Eibarren ez eze, beste bospasei tokittan joteko konpromisua hitzartuta dake honezker, tartian Araba Euskaraz eta Ibilaldia jaialdixetan eta, gaiñera, Arabako ikastolen jairako grabauko dan disko berezixan euren abesti bat egongo dala aurreratatu deskue.

Taula gaiñian Axular Arizmendi (ahotsa), Axier Garai "Kiriketa" (bajua) eta Iñigo Larrinaga (gitarra) aldamenian eukiko dittuan Sologai-stoaren berbetan, "kontzertu martxosua" eskintzera dator taldia eta Aratostietako asteburuari ekiteko "plan politta" izan leikiala pentsatzen dau. Gaiñera, euren diskua bertan erosteko aukeria be egongo da (10 eurotan) eta dedikatorixak eta bestelakuak egitteko gertu dagoz.

**Fabada-jana Aratoste Zapaturako**

AURTENGO JAIXETAKO NOBEDADIETAKO BAT BIXAR AILLEGAUKO JAKU: Aratostietan karpa barruko animaziñuarekin arduratuko dan Lambretta Klubak, El Corte Inglés-



ak lagunduta, Aratoste Zaturako fabada-jana antolatu dau-eta. Asturiaseko sukaldari batek preparauko dau jatekoa eta osagai gutiak be (fabeak, txorizua, urdaixa, odolostia eta lakoia) bertatik ekarritakoa dira. Edateko sagardua eta Errioxako ardu ondua egongo dira eta postrerako "casadielles" izenekoak: Asturiasen bertan preparauko dittue, Pola de Siero-ko La Molienda gozotegian eta bixar bertan bertan Eibarreraño ekarriko dittue. 14.00xak eta 16.00ak bittartian egingo dan ekitaldixa girotzen gaitajoliak jardungo dabe. Bazkarirako txartelak alde zurretik saltzen ibilli dira (12 eurotan) baiña bixar oindio txartelak geratzen bada, karpan bertan erosteko aukeria be eskinduko dabe.

### Play-back eta koko-jantzi lehiaketak zapatuan

ARATOSTE ZAPATUAN UMIK IZANGO DIRA ATZERA BE PROTAGONISTA NAGUSIAK, arratsaldeko lehen partian behintzat:



17.00etatik aurrera eta urteroko moduan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta play-back lehiaketia jokatuko dabe izena emon daben ikasliak. Aurtengo ediziñuan 21 taldek jardungo dabe nor baiño nor, iñoiz baiño gehixago. Ordu berian, baiña Urkizun, Galiziako Etxiak antolatuta umiendako koko-jantzi lehiaketia hasiko da. Eta lehiaketa bixak amaituta, Ustekabek kalejiria hasiko dau Untzagan, karpa barruko musikarekin DJ Arno arduratuko dan bittartian. Nahi dabenandako txokolatia banatzen, barriz, Urbat waterpolo taldekuak ibilliko dira. Eta gaberako bidia zabaltzen juateko, 20.00etatik aurrera eta azken urtiotako martxiari jarraituta Urkizutik urtengo dabe koko-jantzitako kuadrillak. Gabeko 23.00etatik aurrera eta ordu txixketan sartu bittartian, Ostadar taldekuak jardungo dabe berbenia eskintzen Untzagan.

### Lehiaketak domekako protagonistak

GAUR BERTAN EMONGO DABE ADITZERA KOKO-JANTZITA LEHIATU DIRAN HAMAR TABERNEN ARTIAN epaimahaixak sarixa eruateko aukeratutakua zeñi izan dan, baiña oindio be sariren bat edo beste eskuratzeko sasoi gagoz. Izan be, eta Udalak antolatuta, aurreko urtiotako pella lehiaketiari torrija edo torrada modalidadia gehitu detse eta, parte hartzerantz animatzen diranak, domeka eguardixan 12.30xetan etxian egindako postriekin Untzagan agertu eta bandejak presentau baiño ez dabe egin bihar. Epaimahaiko kidiak aukeratzen dittuen hiru onenendako sarixak banatuko dittue (dirua eta garaikurra). Irabazliak, Aratostietako beste lehiaketetan garaille



diran bestiekin batera, domekan bertan, 13.30etan jasoko dabe premixua. Bestalde, goguan izan Arrate Kultur Elkarteak urteroko moduan Eguen Zuri Argazki lehiaketia antolatu dabela eta, lokala konpontzen diharduen arren, lehiaketarako lanak Deporren jasoko dittuela, tabernan zein buleguetan. Domeka arratsaldian, barriz, umiendako ikuskizuna eskinduko dabe karpan 17.00etatik aurrera: "Jira ta bira... beti begira".

### Sardiña "enterratzeko" ordua

ETA JAIXETAN KOLORIAK NAGUSI IZANGO DIRAN ARREN, AGUR ESATEKO orduarekin batera beltzak hartuko dau tokixa Aratoste Martitzenian. Eguen Zurixan pasautakua bidetik, martitzenian be umiak girotuko dabe jaixa, 17.00etatik aurrera Untzagan egingo diran jolasetan parte hartuta eta 18.30xetan Sardiñaren entierro txixka egin da. Baiña etxera triste jua barik, seguro penna guztiekin ahaztuta bueltauko dirala DJ Arnorekin dantzan egittera geratzera animatzen diranak!

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberrista 20 - beheko, eskuna

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorio eta Errozketa larrea**

- Egaitzen (Signo poligonoan)
- Partikulat, melua eta aseguru etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan zotatu
- Nazio eta Nazioarteko trilogioak

**Mugica Ehorzketa**  
Errozketa larrea

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Solomo iberikoaren carpaccio-a*  
*Etxeko foie*  
*Alkatxofak almejekin*

*Legatza plantxan*

*Ahate confit-a*  
*edo Solomilloa Idiazabal erara*

*Hainbat osagaietako postrea*  
*edo Gaztai mousse-a*  
*edo Limoi sorbetea cavarekin*

*Urteko ardoa, sagardoa edo beste*

Astehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

**25 €** + BEZ

Tokia gordetzeko:  
**943206348**




## Hierros Anetxeko rugbilariak benetako orduaren aurrean

**BIHAR ARRATSALDEAN ERABAKIKO DA BIETATIK - EIBAR HIERROS ANETXE EDO ZARAUTZ-** zeinek jokatuko duen igoerako promozioa. Kostaldekoek bi puntuko aldea kentzen die Isasak entrenatzen ditueni eta, horregatik, eibartarrek gutxienez bi puntugatik irabazi behar diete Zarautzekoei. Partidua 16.30-etan jokatuko da Unben eta

atsedenaldian zozketa berezia egingo dute ikusleen artean: 1. saria, Heredad de Ugarte hotelean gaua, afaria eta gosaria; 2. saria, arrain eta marisiko otarra eta lurrun-sukalde programagarria; eta 3. saria, okel-otarra eta lurrun-sukalde programagarria. Horren aurretik, 15.30etan, nesken partidua jokatuko da Durango-Arrasateren aurka.

## Durangoren porrotaz baliatuz, Teknografik lidergoan berdinduta

**ALKIDEBAK EZUSTEA EMAN ZUEN DOMEKAN ETA DURANGO LIDERRARI** 3-0 irabaziz, Teknografik-ek bizkaitarrak harrapatzea ahalbidetu du. Azken honek ez zuen ezustekoarentzat tarterik laga eta 3-0 irabazi zion Txokori. Une honetan Durango eta Teknografik berdinduta daude lidergoan, 44 punturekin, hiru puntura dago JoserAuto Sport (9-1 irabazi zion asteburan C. Dental Ekodeni) eta seira Esmorga



(hauek 3-0 garaitu zuten Caserío XOK). Alkideba, hurrengo sailkatua, liderrengandik hamar puntura dago jadanik, hori azken jardunaldian Durango makurtuarazi ondoren. Asteburu honetan, Aratoste jaiak direla-eta, ez da partidurik jokatuko.

## Tarsicio-Peña seigarren Gabiriako rallysprintean

**IBAN TARSICIO ETA IÑIGO PEÑAK OSATUTAKO ESCUDERÍA EIBARKO ORDEZKARITZAK** seigarren postuan amaitu zuen Rallysprinteko Euskal Txapelketako denboraldiari hasiera eman zion proba. Gabirian zapatuan jokatutako proban 75 autok hartu zuten parte, tartean Gotzon Urrutiak eta Aitor Rotxak osatutako Escudería Eibarko bikotea (41. postuan amaitu zuen). Ander Vilariñok eta Irune Zubiaurrek osatutako taldea izan zen irabazlea.

## Arratek berebiziko partidua du gaur Naturhouse La Riojarekin

**LOGROÑOKO TALDEA EZ DA AURKARI ERRAZA IZANGO, BAINA ARRATEK GARAIPENA BEHAR DU** (hemendik aurrera final asko jokatuko beharko ditu Asobal ligako taldeak mailari eusteko) sailkapenean atzean ez gertatzeko. Arratek Logroñon 28-29 irabazi zuen lehen itzulian; hala ere, errioxarrena talde indartsuagoa da eta Julian Ruiz-en mutilek %100 eman beharko dute gaur, 21.00etatik aurrera. Gaurko partidurako gestora berriak hainbat neurri hartu ditu Ipuruako gradak betetzeko: helduendako sarrerak



10 eurotan, zozketak atsedenaldian, gonbidapen banaketa Eibar, Ermua eta Elgoibarko ikastetxeetan, gonbidapena probintziako eskubaloi talde guztiei eta baita Kezka Dantza Taldekoei eta Ustekabe txarangakoei ere.



Eibarko ordezkariak txapelketan, Manu Agirrekin.

## Nekane Muguruza Gipuzkoako txapelduna judoan

**LEZOKO KIROLDEGIAN ASTEBURUAN JOKATUTAKO ESKOLA MAILAKO GIPUZKOAKO JUDO TXAPELKETETAN,** Kalamua judo taldeko Nekane Muguruzak borroka guztiak irabazi zituen eta urrezko domina bereganatu. Eibarko beste ordezkari bik, Berta Alonsok eta Julen Ramónek brontzezko domina eskuratu zuten txapelketa berean. Barixakuan Andorrako gizonezkoen torneoan izango dira Kalamuako judokak.





## Junior mailako Udaberri Saria jokatu da domekan

**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTA, UDABERRI SARIAREN 33. EDIZIOA** jokatu da domeka goizean. Junior mailako lasterketa 10.30etan hasiko da Untzagatik eta handik bi ordura gutxi gorabehera amaituko Bidebarrieta 2 zenbakiaren parean kokatu den helmugan. Txirrindu-

lariak 78 kilometro bete beharko dituzte, Eibartik irtenda Bergaraino joanda, handik bueltatu eta Maltzagan Ondarroarako bidea hartuz eta handik, Markina eta San Miguel gainak zeharkatu eta gero, gure herrian azken kilometroak kontrako norabidean betetzeko (Karmen, Urkizu eta Bidebarrietan).

## Bihar 17.00etan Peña Sport - Eibar

**BIHAR ARRATSALDEAN JOKATUKO DUTE TAFALLAN MANIXEN MUTILEK** sailkapeneko azken-aurrekoaren aurka. 38 urte dira eibartarrek ez dutela bertan jokatzeko eta orduko hartan 0-1 nagusitu ziren armaginak. 2. B mailako bigarren multzoko lidergoaren bila, Eibar FT Alavésengandik puntu baxkarrera dago eta garaipenak balio bikoitza izan dezake, jakinik Alavésnek neurtzeko zaila izango duela Mirandésen aurka Mirandan. 3. mailako Eibarrek, bestalde, Durangon jokatu du.

## Nora Varela Urbat-Urketonik-eko igerilaria Espainiako txapeladuna



**HIRU ORDEZKARI IZAN ZITUEN URBAT-EK PALMA DE MALLORCAN JOKATUTAKO** junior mailako Espainiako txapelketetan eta Nora Varelak txapela jantzi zuen braza modalitateko 50 metrotan eta 2. postuan sailkatu zen modalitate bereko 100ekoetan. 200 metroko proban 4.a izan zen. Berarekin izan ziren txapelketetan Nekane Tejedor eta Martin Aizpiri eta horiek ere maila bikaina erakutsi zuten: Tejedor 6.a izan zen braza modalitateko 50ekoan eta 9.a estiloko

200ekoan. Martin Aizpirik, bere aldetik, 14. amaitu zuen libre erako 200 eta 400 metroko lasterketa bietan.

Bestalde, benjamin eta alebin mailako ligaren 3. jardunaldia jokatu zen Oñatin: braza eta libre modalitateko 50, 100 eta 200 metroko probak jokatu zituen bertan haraino joandako 27 igerilariz osatutako ordezkarietak. Asteburu honetan, bestalde, infantil mailako Euskadiko txapelketa izango da jokoan zapatuan eta domekan Irunen.



Aurreko asteburuan Gipuzkoako txapelketetan parte hartu zuen Urbateko ordezkarietak.



## HOTEL ARRATE

\*\*\*

**Gela hirukoitz eta laukoitzak despedidetarako**

**Jaunartzeak, bataioak, ospakizun bereziak...**

**Etorri afaltzera barixaku eta zapatuetan: menu berriak**

Erreserbak: [arrate@hotelarrate.com](mailto:arrate@hotelarrate.com)

**Ego Gain, 5**  
Tel. **943 207242**

[www.hotelarrate.com](http://www.hotelarrate.com)  
Faxa. 943 700074

## Aratoste Menua

Afariak martxoaren 4an (barixakua) eta 5ean (zapatua)

- Pasta-Entsalada
- Thipiroi eta Modena
- Ozpín-olioarekin
- Olagarro eta Otarrainskekin
- Betetako Hojaldearekin
- Marisko Hremarekin
- Bakalao Solomoa
- Piperradarekin
- Bildots-Txuletatnuak
- PaJa Patatekin
- Torradak Txokolat Beroarekin

**30€**  
bakoitzak  
BEZ barne

Gaua Hona: Etneak gonbidatura  
Zapatuan Musika

Deitu **943-207242** zenbakira  
**ERRESERBAK EGITEKO**

Zurumuru taldeak urteak daramatza antzerki munduan. Puy Oses, Nerea Ariznabarreta eta Irati Trebiñok osatutako taldeak hainbat alor lantzen ditu, besteak beste, klown ikastaroak, pailazo-ikuskizunak edota ipuin kontaketak. Hilaren 26an "Zomorroak" ipuin kontaketaekin etorriko dira umeen liburutegira.

**IRATI TREBIÑO, Zurumuru taldeko kidea:**

## "Pailazo jardutea: gehien gustatzen zaiguna"

**- Zein eratako ikuskizuna izango da hilaren 26koa?**

Saioan zomorroak izugarri maite dituen kontalaria iritsiko da liburutegira, bi ipuin kontatzera. Ghanako armiarma batekin oihanean baneratzeko aukera izango du lehenik eta Jaxintoren lorategia ezagutzeko ondoren. Inguruan daukagun izakirik txikienek ere gauza asko irakatsi ahal dizkigutela esatera hurbilduko da eta une dibertigarria pasatzeko aukera ezin hobea da.

**- Antzerkiaren barruan hainbat alor lantzen ditu zuen taldeak, ezta?**

Denetarik egiten dugu: Kili-Kolo antzerki taldean hasi ginen, batez ere helduentzako ikuskizunak prestatzen. Hor hasi ginen ikastaroak antolatzen: guretzat, gure formazioa garrantzitsua delako, eta baita gustoko duen beste edozeinentzat ere. Klown ikastaroez gain, antzerkiarekin zerikusia duen edozerrekin animatzen gara. Zurumuru-ri dagokionez, haurrentzat antzerkia egiteari ekin genion. Umorea landu izan dugu beti, eta pailazo jardutea da barru-barrutik ateratzen zaiguna. Ipuin kontaketak geroago iritsi ziren. Egun batean animatu eta saio bat prestatu nuen, lehenengo Bilboko Apika taldearentzat, eta gero, poliki-poliki gure taldearentzat.

**- Martxoan egitekoak zineten antzerki ikastaroa dataz aldatu duzue, ez?**

Bai, apirilaren 16-17ko asteburura atzeratu dugu, goizez eta arratsalde. Maskara neutroa ikastaroa izango da. Maskara neutroa mugimendua murriztuta daukan egoera batean aurkitzen da. Aktorea ez da pertsonaia, izaki neutro generikoa baizik. Ikastaroan bizitza eta bere mugimenduarekiko harreata pizten



saiatuko gara: gure gorputza, eta horrek eskaintzen dizkigun aukeren kontzientzia pizten; horretarako jolasa izango da tresna nagusia. Beraz, "txapa" filosofiko honek ez dezala inor beldurtu, ikastaroa antzerkia gustoko duen edozeinentzat irekia dago.

**- Aurten ere, orain urte bi egin zenuten moduan, ...eta kitto!-ren Bazkide Jaixan izango zarete, apirilaren 9an. Zer eskainiko duzue?**

Zirko-tailerra antolatuko dugu umeentzat. Umeek, ondo pasatzeaz gain, zirkoko artekin lehen kontaktua izateko aukera izango dute. Horretarako gune ezberdinak sortuko ditugu eta bertan, gure laguntzarekin, malabareak, akrobaziak, oreka... landuko dituzte.

**- Zelan animatuko zenituzke bazkideak gure jaietan parte hartzera?**

Jai ederra izango da! Primeran pasatzeko aukera izango dute helduek zein umeek, bazkideek elkar ezagutuko dute, eta ...eta kitto!-ri merezi duen bultzada eman ahal izango diogu. Badakizue, euskaraz bizi gaitzen eta euskara bizi dadin zein garrantzitsuak diren ...eta kitto! moduko elkarteak, eta zein garrantzitsuak garen gu haietentzat.

## Irun Hiria poesia saria




**Asier Serranorentzat**

**ASIER SERRANO EIBARTARRAREN "DESTERRATUEN PIZTIARIOA" GAILENDU DA** Irun Hiria lehiaketako euskarazko poesiararen atalean, Iñaki Aldekoak, Jon Kortazarrek, Lourdes Otaegik, Carlos Otegi eta Patri Urkizuk osatutako epaimahaia hala erabakita. Neurri batean, joan den udazkenean argitaratu zuen "Hiri gorritik" poemarioaren bilakaera da Desterratuen piztiarioa saritua, galtzailearen figuraren inguruan egindako hausnarketa. Bere buruari erronka egin eta lehiaketa batera lan bat aurkezten duen lehenengo aldia izan da hau Serranorentzat, "orain arteko obra no-labait neurtzeko beharraz bultzatuta".

## Eriz magoarekin barrezka Portalean

**ERIZ MAGOAK MUNDU BERRI BATEAN MURGILDU ZITUEN** domeka eguerdian bere emanaldira joandakoak eta barre algaretan ipini zituen ikusleak. Gurasoak Berbetan Haur Hezkuntzako gurasoen mintzapraktika taldeentzako antolatuta bazegoen ere, ...eta kitto!-ko bazkideek ere izan zuten ikuskizunaz gozatzeko aukera.



## Saharako marathoia Korrika Kulturalean



**AURTEN KORRIKA DATORRELA-ETA, AEK-K BI URTETIK BEHIN EGIN OHI DUEN MODUAN,** hainbat ekintza antolatu ditu Korrika Kulturalaren barruan. Horietako bat datorren martxoaren 10ean, eguena, izango da "Sahara Marathoia: kirolarekin desertuan zehar" izenburupean. Euren egoera eta bizibaldintzak ezagutzeko, eta diru- eta janari-laguntza eramateko aitzakiarekin, azken 10 urteotan Saharako nazioarteko maratoi solidarioa antolatzen da otsaileko azken astean eta horren berri emango digu eguenean Nubi elkarteak, arratsaldeko 19.00etan Portaleko areto nagusian.

## Luis Eduardo Auteren kontzertua hilaren 18an



Zubillaga, Beorlegi eta Paredes, Jai Productions-en arduradunak. / SILBIA HERNANDEZ

**BARIXAKUAN AURKEZTU ZUTEN JAI PRODUCTIONS ENPRESAREN ESKUTIK**, Luis Eduardo Autek kontzertua emango du Eibarren. Iaz grabatu zuen "Intemperie" diskoa aurkezten izango da Aute, martxoaren 18an 21.30etatik aurrera Astelena frontoian. Kontzerturako sarrerak aldeztatik erosteko aukera izango da (20 eurotan) Eibarren Portalea, Birjiñape, Trinkete, Terraza, Arno, Caserio tabernetan eta Ayerbe liburudendan, Elgoibarren Lanbroa tabernan, Ermuan Xagua tabernan eta Durangon Horse tabernan. Egunean bertan 25 eurotan salduko dituzte txartelak, frontoiko leihatilan. Bestalde, antola-

tzaileek euren web orrian (jai-productions.net) sarreraren salmentarako atala prestatu dute, komisio barik txartelak internet bidez salgai ipintzeko.

Iñaki Zubillaga, Jose Antonio Paredes eta Xabier Beorlegi eibartarrek enpresa pribatu gisara eta euren lanetarik aparte sortu dute Jai Productions, "Eibarren kontzertuak antolatzeke asmoarekin. Ez dugu inorekin lehiatu nahi, dagoen eskaintza osatzea da gure helburua". Lehenengo kontzertu honekin ekingo diote helburu hori lortu ahal izateko bideari eta etorkizunean herriko zein kanpoko beste taldeekin elkarlanean jarduteko prest daudela azaldu dute.

## Aratoste bereziak Karrikan

**BIHAR GAUEAN ABIATUKO DA KARRIKA TABERNAK MARTXORAKO PRESTATU DUEN EGITARUA**, "Karrika DekaDantza aretoa" izenburukoarekin. Antolatzaileen berbetan, "Aratoste-etan Karrika dantza areto bilakatuko dugu, dekadantza areto hain zuzen ere. Dekadentzia bizi-bizi dantza daitekeelako, 80. eta 90. hamarkadetako abesti ezagun eta garrantzitsuenak entzuteko aukera izango da. Baina hori baino gehiago eskainiko diogu jendeari: denbora-makinan etortziko hainbat pertsonaia ere gure artean izango dira". Domekan, berriz, 19.00etatik aurrera "Dibuk jazz quartet" taldearen kontzertua hartuko du tabernak. Hasier Oleaga (bateria), Javi Alzola (saxo-tenorea), Miguel Salvador (gitarra) eta Jon Piris-ek (kontrabaxua) osatzen dute taldea, lauak ere eskarmentu handiko musikariak. Eta hilaren



10ean, eguenean, 18.00etan hitzaldi-aurkezpena egingo du Ekinklik kolektiboak, "2010, urte bat irudietan" izenburuko argazki erakusketa inauguratzearekin batera. Martxoaren 13an Joseba Irazokik eskainiko duen kontzertuarekin biribilduko dute hilabete honetarako egitaraua.

Harañegungo giza-estatuak lur eta zur laga zituen hainbat ikusle. / SILBIA HERNANDEZ



## Irudi bizidunen erakustaldia

**GIZA IRUDIEN IX. ERAKUSTALDIA EGIN ZUTEN EGUAZTEN ARRATSALDEAN UNTZAGAN**, bezperan aurkeztutako 34. Antzerki Jardunaldien programazioaren barruan. Bartzelonako M.P.C. taldeko bost aktorek beste horrenbeste pertsonaia aurkeztu zituzten aho-zabalik zego-

en publikoaren harridurarako: Alonso Guerrerok "Aurkitu zure barnea" erakutsi zuen, Jorge Balmasedak "Aingeru lebitatzailea", Pawer Hernández-ek "Toreatzaila", Orlando Briceñok "Transformerra" eta Fabián Lópezek "Astronauta". Aratosteetarako girtzen joateko modu ezin hobea.

## laburrak

### KANTABRIAKO ETXEKOEN BATZARRA

Kantabriako Etxeak hilaren 13an egingo du urteko batzarra, 12.00etan elkartearen egoitzan (Jardiñeta, 9an). Bazkideei dei egiten diete, ahal dela parte har dezaten eta ipinitako hasiera ordurako bertaratzeko.

### ...ETA KITTOI-KO BATZAR NAGUSIA

Martxoaren 17an (eguenan) egingo du urteko batzar nagusia ...eta kitto! Euskara Elkartek, bere egoitzan (Urkizu, 11). Lehenengo deialdia 19.00etan izango da eta bazkideen erdia baino gutxiago agertuz gero, estatutuetan jasotakoari jarraituz ordu erdi geroago, bigarren deialdian egingo da batzarra. Gai ordena honakoa da: 2010eko gestio balantzea, 2011rako egitasmoak eta aurrekontuak, galdera-erantzunak eta iradokizunak, zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua eta piskolabisa.

### SAGARDOTEGIRA AEK-REKIN

Martxoaren 11rako afaria antolatu du AEK eskaltegiak, Hernaniko Larre-Gain sagardotegian. Nahi duenak izena emateko aukera dauka, 943201379 telefonora deituta edo eskaltegira joanda. Irteera 20.00etan izango da eta 40 euro inguru ordaindu beharko du bakoitzak.

**Asier Serranoren****kolaborazioa****Castellanizatu nazazue (II)**

Oraindik ez duzue nire aurreko hilabeteko eskaria guztiz gauzatu, eta haur eta txakurrekin soilik hitz egiteaz aspertu naizenez, arren, castellanizatu nazazue. Ez dut, demagogikoki eta demografikoki hautatutako gure agintari gorenak dioen bezala, euskara bortizkeriarekin lotu dezazuen nahi; bart, euskal hizki matxinatu batek ezpataz zauritu zuen herri honen kontzientzia soziala, eta emadazue hizkuntza bakarra mintzatzearen saria, emadazue castellanoaren neutraltasun demokratikoa. Libra nazazue nire mihiak mintzo duen gaitz arriskutsu eta, agidanez, ez-kutsakor honetatik. Castellanizatu nazazue eta alitosisia izateaz baino ezingo naute salatu, baztertu eta zigortu globalizazioaren ferian. Zuen jauregi postmodernoetan literatura vascoaz hitz egin nahi dut, ez dut huntzak eta herdoilak jandako eraikin abandonatuetan euskal literatura egiten segitu nahi. Castellanizatu nazazue, horrela bakarrik babestu ahal izango baitugu euskara. Akitua nago euskaraz nor naizen esplikatzeaz, castellanizatu nazazue eta esplikatu ahalko dizuet nor ez naizen.

**musika****Patxi Saiz  
Itxaropena**

Patxi Saizek euskal kantu tradizionalen eta kantautoreen tradizioan oinarritzen den hamaika kantuz osatutako Itxaropena izeneko disko berria dakarkigu. Izan ere, jorrazten diren gai guztietan itxaropena baita kantuen xede nagusia. Kantautore izaera oinarri izanik, diskoa instrumentazio ezberdinez jantzita azaltzen zaigu: pianoa, akordeoia, biolina, oboea, armonika, baxua eta perkusio ezberdinak.

**Mafia  
Omerta**

Mafia taldea Berrizen sortu zen 2008. urtean Eneko Urzelai (bateria), Gabriel de la Rosa (ahotsa), Iñaki Elortza (gitarra) eta Iñaki Etxezarraga "Etxe" (baxua) elkartu zirenean. Orain, bi urte hauetan konposaturiko kantuak Omertá (Isiltasunaren legea) izeneko diskoan grabatu dituzte. Bertan euskaraz abesturiko 13 kantu aurki daitezke. Rock doinu gogor eta landuak. Amerikar ikutu handia dute gitarren riffek eta landutako melodiekin asko aberasten dira kantuak.

**Miren Agur Meabe  
Bitsa eskuetan**

Idazle bizkaitarraren lana hiru kapitulutan banatuta dago: La vie en rose, Harearen geriza eta Zapitxo intimoak. Guztira 55 olerki biltzen ditu liburua. Era guztietako literatur generoak –nobela, ipuinak, haur literatura, iritzi artikulua– landu dituen autore hau berriro ere posigintzaren eremura bildu da Bitsa eskuetan bildumarekin.


**J. Inaz. Basterretxea  
Azken tranbiaren itzala**

1938ko uztailaren 30ean, faxistek Bilbo hartu zutenetik urtebetera, hiriburutik hurbil den herri batean, hari bi gurutzatuko dira. Batetik, auto ofizial batean zenbait frankista nabarmen datoz. Bestetik, haiekin topo egingo du Basabe-Uriarte familiak. Sendi apala, lanaren nekeak eta maitasunaren pozak ahal bezala daramatzana, historiaren protagonista ez baidarik haren biktima izaten ohitua.


**literatura**

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunene bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MAIDER, zure urtebetetzian. Muxu pillua Resu, Eduardo eta Adrianen partez.




Zorionak, AINARA, astelehenian zazpi urte egin zenduazena-eta. Familixa guztiaren partez.



Zorionak, AMETZ, honezkeror urtebete egin dozu-eta. Patxo haundi bat familixa guztiaren partez.




Zorionak, JULE, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Familixaren partez.




Zorionak, UNAX, domekan lau urte egingo dozuzelako. Patxo haundi bat ama, aitta eta Joneren partez.




Zorionak, ANE, astelehenian 11 urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat familixaren partez.




Zorionak, MAIALEN eta BEÑAT! Laztan haundi-haundi bana gure printzesa eta gure piratari!! Aitaxo eta amatxoren partetik... Muuuua!!!




Zorionak, ALAIN, harañegun urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat familixa guztiaren partez.



Zorionak, IRENE, astelehenian bost urtetxo beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat familixaren partez.




Zorionak, GORKA Bordas, bixar sei urte beteko dozuzelako. Gurasuak, arreba Amaia eta Ane lehengusiarren partez.




Zorionak, ENARA etxeko neska haundixari, harañegun lau urte egin zenduazena-eta. Patxo bat danon partez.

## zinea Coliseoan



**"Primos"**  
 Zuzendaria: Daniel S. Arévalo  
 Aktoreak: Raul Arévalo, Quim Gutiérrez, Clara Lago, Inma Cuesta  
**4ean: 22.30**  
**5ean: 17.00/19.45/22.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 20.30**




**"De dioses y hombres"**  
 Zuzendaria: Xabier Beauvois  
 Aktoreak: Lambert Wilson, Michael Lonsdale, Olivier Roubourdin, Philippe Landenbach  
**4ean: 22.30**  
**5ean: 17.00/19.45/22.30**  
**6an: 17.00/19.30**  
**7an: 20.30**




**"Valor de ley"**  
 Zuzendaria: Cohen anaiak  
 Aktoreak: Jeff Bridges, Matt Damon, Josh Brolin, Hailee Steinfeld  
**4ean: 22.30**  
**5ean: 19.45/22.30**  
**6an: 19.30**  
**7an: 20.30**

**5ean eta 6an: 17.00**



Zorionak, NAIA, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Aitaxo, amatxo eta Jonen partez.



Zorionak, ANE, domekan urtebete egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIHANA martitzenian bost urte egingo dozuz-eta. Muxu asko osabazikeo eta familixa guztiaren partez.

Zorionak, JULITA eta ENRIKE! Eskerrik asko, 50 urte eta gero, gu gara-eta zuen maitasunaren emaitza. Xabier, Izarne, Aizpea eta Leire.



### HILDAKOAK

- Francisco Formoso Araujo. 85 urte. 2011-II-12.
- Teresita Lapeyra Gisasola. 68 urte. 2011-II-23.
- Pedro Gallastegi Arana. 82 urte. 2011-II-23.
- Carmen Intxaurraga Mujika. 96 urte. 2011-II-24.
- Jose Conde Blanco. 87 urte. 2011-II-25.
- Basilio López de Zordia G<sup>a</sup> de Acilu. 90 urte. 2011-II-26.
- Manolo Magro Alvarez. 59 urte. 2011-II-26.
- Pilar Olariaga Fernández. 63 urte. 2011-II-28.
- Juan García-Abad Saceda. 96 urte. 2011-III-1.

### JAIOTAKOAK

- Naroa Zamakola Gonçalves. 2011-II-16.
- Doha Lekhal. 2011-II-21.
- Patric Hodei Rodríguez Rodríguez. 2011-II-23.
- Miren Delgado Aranzeta. 2011-II-24.

## horoskopoa

**ARIES**

Aratosteak heldu dira, baina ez duzu parrandarako gogo larregirik. Saiatu animatzen eta ikusiko duzu zelan uste baino hobeto pasatuko duzun.

**TAURUS**

Ez zaitu inork ezagutuko! Mozorro ezin hobea aukeratu duzu eta jendea aho zabalik lagako duzu. Aratosteetan zu jaun eta jabe izango zara!

**GEMINI**

Ligatzeko asmoarekin bazabiltza, kendu egizu ideia hori burutik. Mozorro horrekin ez dut uste inor hurbilduko zaizunik! Ihes akaso!

**CANCER**

Aratosteak ondo pasatzeko eta norbere buruaz barre egiteko dira. Baina zuk beti nahi izaten duzu dotore egotea. Hori zaila izan daiteke.

**LEO**

Hilabete bi daramazuz mozorroa pentsatzen... eta oraindik ez duzu erabaki? Ez da go astirik: etxean aurkitzen duzunarekin... hala, kalera!

**VIRGO**

Kontuz norekin ligatzen duzun: mozorroarekin sekulako neska edo mutil puxka ematen duena agian beste gauza bat da... eta hori porrota!

**LIBRA**

Egun hauetan hain ondo eta horrenbeste barre egingo duzu datorren aste osoa tripako minaz egongo zarela. Gozatu bitartean!

**SCORPIUS**

Ez zaizkuzula Aratosteak gustatzen, mozorrotzea deserosoa dela, tabernetan jende larregi egoten dela... Bada, gelditu zaitetz etxean!

**SAGITTARIUS**

Bob Esponjaz mozorrotzea ideia ona izan daiteke epel-epel egoteko, baina jende artean ibiltzeko arazoak emango dizkizu jantzi horrek.

**CAPRICORNIUS**

Gustoko duzun pertsona aldamenen izango duzu ia gau osoan; baina konturatuko zara bera dela? Argi ibili! Eta ez kendu begirik aldamenetik!

**AQUARIUS**

Jaia, parranda eta Aratosteak maite dituzu eta egun hauek mundialak izango dira zuretzat. Aprobetxatu eta ondo pasa: hori gozamina, hori!

**PISCIS**

Orijinala izatea gustatzen zaizu; baina horretarako denboraz prestatu behar da mozorroa eta zu, betiko moduan, azkenengo orduan zabilta...

**Barixakua 4****BARIXAKU ERREGULARRA**

**19.30.-** Urkizun hasita, Kaldereroen kalejira.  
**20.30.-** Kaldereroen abestiak/dantzak. Untzagan.  
**21.00.-** Pregoia.  
**21.30.-** Herri afaria. Untzagako karpan  
**23.00.-** Nahixan taldearen kontzertua. Untzagan.

**Zapatua 5****LANDARE-AZOKA**

**09.30.-** Lore eta Landareen I. Azoka.  
**11.30.-** Umeendako tailerraren hasiera (13.30ak arte). Urkizuko parkean.

**ARATOSTE ZAPATUA**

**12.00.-** Aratosteetako karpan animazioa.  
**17.00.-** Umeendako play-back lehiaketa. Untzagan.  
**17.00.-** Koko-jantzi lehiaketa, Galiziako Etxean.  
**17.00.-** Koko-jantzi lehiaketa. Errota gaztelekuan.  
**18.00.-** Untzagan hasita, kalejira Ustekabe fanfarrearekin.  
**18.30.-** Umeendako diskoteka Untzagako karpan DJ Arnorekin.  
**19.00.-** Txokolate-jana Urbat W.K.E.  
**20.00.-** Urkizutik hasita, koko-jantzitako koadrilen kalejira.  
**23.00 / 03.00.-** Dantzaldia Ostadar taldearen eskutik.  
**03.00.-** Txokolate-jana. Urbat W.K.E. Untzagan.

**80-90 HIT-AK**

**Gauetz.-** "Karrika DekaDantza aretoa" Nun zinen zu 80. hamarkadan?". Dantza-aretoa. Karrikan.

**Domeka 6****TXIRRINDULARITZA**

**10.30.-** XXXIII. Udaberri Saria. Euskal Herria Junior. Untzagan.

**ARATOSTE DOMEKA**

**11.00.-** Usartza Txistulari Bandaren kalejira.  
**12.30.-** Pella eta torrada lehiaketa. Untzagan.  
**13.30.-** Aratosteetako kartel, taberna, eta pella eta torrada lehiaketetako sari banaketa ekitaldia.  
**17.00.-** "Jira ta bira... beti begira". Untzagako karpan.

**TAILERRA**

**17.00.-** Sukaldaritza tailerra. Errota gaztelekuan.

**PILOTA**

**17.00.-** Retegi Bi/Arruti vs Idoate/Ladis Galarza. González/Laskurain vs Bengoetxea V.I.a/Patxi Ruiz. Ongay vs Gorka. Astelena frontoian.

**KONTZERTUA**

**19.00.-** Dibuk Jazz Quartet. Karrika tabernan.

**Astelehena 7****IKASTEN**

**16.00.-** Sendabelarren foroa: lilipa edo nartzisoak eta perrexila. Portalean.

**Martitzena 8****IKASTEN**

**10.00.-** "El tiempo en la historia (2. zatia)", Miguel Arroita jauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

**KONTZENTRAZIOA**

**13.00.-** Emakumeen Nazioarteko Eguna: "Lan munduan berdintasuna lortzeko, aurrera!". Untzagan.

**ARATOSTE MARTITZENA**

**17.00 / 18.30.-** Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzagan.  
**18.30.-** Sardinaren entierro txikia, trikitilariak lagunduta. Umeendako diskoteka Untzagako karpan DJ Arnorekin.

**Eguaztena 9****IKASTEN**

**10.05.-** Mendi-ibilaldia: Lasao-Azpeitia-Loiola-Azkoitia. Trenaren irteera 10.05etan Ardantzan.

**HITZALDIA**

**19.00.-** Hitzaldi-aurkezpena: "Banca Ética Fiare", Periko Etxebururen eskutik. Portalean.

**Eguena 10****IKASTEN**

**10.00.-** "La revolución de 1934", Jesus Gutierrez Arosaren eskutik. Armeria Eskolan.

**EGO IBAR ZINEKLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "Cartas al padre Jacob" (Zuz: Klaus Härö). Euro bi.

**ODOL-ATERATZEA**

**16.30.-** Odol-emaileentzat odol-ateratzea, Odol Emaileen Elkartearen (Pagaegi, 5).

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**19.00.-** Irekiera Ekitaldia: "El actor y su compromiso" hitzaldi-solasaldia, Juan Diego-ren eskutik. Narruzko Zezen Lehiaketaren 26. edizioaren sariak banatuko dira. Coliseoan.

**HITZALDI AURKEZPENA**

**18.00.-** Ekinklik kolektiboa eta "2010, urte bat irudietan" argazki erakusketaren hasiera.


**KORRIKA KULTURALA**

**19.00.-** "Sahara Marathoia: kirolarekin desertuan zehar", Nubi elkartearen eskutik. Portalean.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.





**erakusketak**

- Martxoaren 6ra arte  
**EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA**ren erakusketa kolektiboa. *Ermuko Lobiano Jauregian.*
- Martxoaren 13ra arte  
**IZASKUN ALVAREZ-GAINZA**ren "Graphique et couleur" erakusketa. *Portalean.*
- ROSA M<sup>a</sup> VALBUENA**ren margo erakusketa. *Portalean.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Egipto" argazki erakusketa. *Modotti tailerrean (Kale Nagusia, 28. Hondarribia)* Ordutegia: lan-egunetan 17.30etatik 20.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 11.00etatik 14.00etara.

**lehiaketak**

- **Pella eta torrada lehiaketa.**  
Noiz: *Martxoaren 6an*, 12.00etatik 12.30etara. Untzagan.
- **Esaera zaharren lehiaketa.**  
Botoa emateko: Martxoaren 11ra arte, [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) webgunean.
- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.**  
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, [arrate.kultu@eibar.org](mailto:arrate.kultu@eibar.org) edo 943202299 zenbakia. Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16-1), bulegoetan edota tabernan.

**farmaziak**

- 4, barixakua**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 5, zapatua**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- 6, domeka**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 7, astelehena**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 8, martitzena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 9, eguaztena**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 10, eguena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 11, barixakua**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

**ikastaroak**

- **"Lapiko, kantuz kulunkatzen".**  
Noiz: *Martxoaren 19an eta 26an*, 10.00etatik 12.00etara Portalean (Haur liburutegian). Informazioa eta izen-ematea: Martxoaren 13ra arte. Portalean, Udal Liburutegian (5 euro).
- **UEUko udaberriko ikastaroak.**  
Informazioa eta izen-ematea: [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean.

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

1			8	5			2
				9			
		2	1	7		6	
3						5	1
	4	9				2	3
2	1						6
		4		8	6	1	
				3			
8		4		1			5

**DENBORAPASAK**

7	2	5	4	8	3	1	6	9
3	9	6	2	6	1	5	4	7
6	1	4	5	7	9	2	3	8
9	3	6	7	2	5	8	1	4
1	5	2	9	4	8	6	7	3
6	4	7	1	3	6	9	2	5
4	7	9	6	5	2	3	8	1
2	8	1	3	9	4	7	5	6
5	6	3	8	1	7	4	9	2

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Amañan. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Oso argitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzari berriekin. Tel. 620-917234.

– Duplexa salgai Eibarko erdialdean (Jata). 80 m<sup>2</sup>. Logela eta komun bina. Estrenatzeko eta kapritxora jantzita. Igogailua ateraino. Bizitzera sartzeko moduan. Garaje bat edo bi, aukeran. 280.000 euro. Aukera ezinhobea. Tel. 608-171719.

– Pisua salgai Urkizun. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 205.000 euro. Tel. 649-441825.

### 1.2. Errentan

– Logela alokagai Eibarren. Tel. 645-538674.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-238113.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren (2-3 logelakoa). Tel. 651-733446.

– Etxea alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Tel. 660-378181.

– Logela alokagai Saratsuegi kalean. Tel. 650-917491.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 m<sup>2</sup>. Trasteroarekin. Tel. 943-120308.

– Garajea alokagai Errebal kalean, Bolintxoren ondoan. Zabalik, trasteroarekin (13 m<sup>2</sup> + 6 m<sup>2</sup>). Tel. 687-800230.

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m<sup>2</sup>. Komuna eta barrarekin. 18 urteik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan edozein lan egiteko. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-007292.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-802342.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 678-972690 eta 943-530795.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 616-690415.

– Gizona eskaintzen da tabernan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 676-133516.

– Mutila eskaintzen da nagusiak edo baserriak zaintzeko. Tel. 630-031218.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-906085.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 696-246962.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 634-005760.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-326355.

– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarak egiteko. Esperientzia saltzaile eta dendari moduan. Tel. 690-113659.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 646-506777.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Tel. 699-813826.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko etabar. Tel. 620-853295.

– Neska eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari jarduteko eta garbiketarak egiteko. Tel. 608-406751.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249775.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 688-884746.

– Neska eskaintzen da garbiketarak lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-296383.

– Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko: tabernak, bulegoak, tailerak... Tel. 603-800159 eta 617-633207.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, ileapaintzaile profesional moduan eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 652-585259 eta 655-132769.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta finka bateko zaintzaile moduan. Tel. 655-132769 eta 652-585259.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Tel. 605-129530.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, nagusiak paseatzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Tel. 685-765340.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-029329 eta 671-329852.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-109181.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Tel. 669-688755.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 649-008036.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 606-226827.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-625733.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-621109.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 675-421933.

– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-531218 eta 699-653874.

## 4.2. Eskaintzak

– Neska behar da asteburuetan jabetxe bateko sukaldean lan egiteko. Tel. 943-121262.

– Lagun bat behar da zapatu goizetan ileapaindegian makillajeak egiteko. Tel. 943-254512.

– Ileapaintzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-708825.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Ingenieritza Informatikako 3. mailako ikasleak "Datuen estrukturak eta algoritmoak 2" ikasgaiko klase partikularrak ematen dituen irakaslea behar du. Tel. 619-163031.

### 5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

– Klase partikularrak ematen dira, ume eta helduentzat. Tel. 645-488483.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Erremolkea salgai (300 kg-rako). Egoera onean eta merkea. Tel. 639-933281.

### 6.4. Bestelakoak

– Aupa, Ani. Muxu handi bat amama eta beste guztion partez. Ondo segi.

# TARATOSTIETAN BE TABERNETAN DOZU GIRORIK ONENA!

**GURIDI** zirkoa



**MUNDUKO  
MUNDIALENA**


ANTONOLAN  
BARRIOAN



OSTIALA - DJ FORTY  
& FRIENDS  
LAPINAKO - ALEX H.  
& FRIENDS

**BOST**

**ONDO  
BAINO  
HOBETO**



**IZANGO  
ZARA  
GURE  
ARTEAN**

**TABAKOAREN**



**kok** **AURKAKO  
LEGEA**

**TXURRUT**  
frontoian



jo **SAKEA** eta...  
...eman **ERRESTOA**

**SUPER  
HEROIEN  
saioa**



**KATU**



**KALE** **ZIRKORAKO**  
prestatuta  
gaude

**AVAR-ATAR 3D**  
merkeenaz  
gozatzeko



**AGUIÑASPI**

**COWBOY**  
duelua zure zain



**BAMETA**

**ARMA  
TIRO  
PUM**



**Tas-Tas**

**TXOKO**



liluratuko  
zaituen  
**ZIRKOA**

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75